



## PNEUMONIA

Zure seme-alabak orain dauzkan sintoma eta zeinuak direla-eta, hauxe da diagnostikoa: **PNEUMONIA**.

### ZER DA?

Pneumonia birrikako infekzioa da, birus edo bakteriek sorrarazia.

### NOLA IGARRI AHAL ZAIO?

Normalean, umeak egun batzuk daramatza katarroarekin, gero eta okerrago dago, sukar altuagoa agertzen da eta ez-tul gehiago. Bularreko ume txikiak ez dute jan nahi, kexati edo goibel ager daitezke, eta batzuetan oso arin eta zailtasunez hartzen dute arnasa. Ume nagusiagoak toraxeko edo abdomeneko minaz kexa daitezke (pneumoniaren kokalekuaren arabera).

Gehienetan, larritasun txikiko prozesuak izaten dira, eta ez dago zertan ospitaleratu umeak medikazioa behar bezala hartzen badu.

### ZER EGIN BEHAR DUT NIRE UMEAK PNEUMONIA BADAUKA?

- Lehenengo, ziurtatu egin behar duzu umeak agindutako antibiotikoa hartzen duela.
- Antitermikoak eman behar dizkiozu sukarra jaitsi dadin
- Likido ugari eskaini behar dizkiozu; horrela, flemak bigundu egingo dira eta errazago kanporatuko ditu. *Ez da beharrezkoa ez-tula medikamentuen bidez tratatzea, zeren eta flemak ez-tularen bitartez ateratzen baitira.*

### ZERI JARRI BEHAR DIOT ARRETA?

Berririo jo behar da pediatarrenera edo gure larrialdietako zerbitzura etorri, umeak sintoma hauetakoren bat edukiz gero:

- Arnasa hartzeko zailtasuna, kolore txarra.
- Ez da gauza tratamendu antibiotikoa behar bezala betetzeko (gorakoak, ezin zaio ahotik eman...).
- Elikatzeko zailtasunak.
- Tratamendu antibiotikoa hasi eta 48 orduetara sukar altuarekin jarraitzen badu.

Su hijo ha sido diagnosticado de **NEUMONIA**, por los síntomas y signos que ahora presenta.

### ¿QUE ES?

Una neumonía es una infección del pulmón que puede estar causada por virus o bacterias.

### ¿COMO PUEDO RECONOCERLA?

Generalmente el niño presenta desde hace unos días catarro, que empeora progresivamente, aparece más fiebre y más tos. Los lactantes más pequeños rechazan la alimentación, pueden parecer quejosos o decaídos, y a veces respiran muy rápido y con dificultad. Los niños mayores se pueden quejar de dolor torácico u abdominal (dependiendo del sitio de localización de la neumonía).

La mayoría de las veces son procesos poco graves que no precisan hospitalización si el niño puede tomar adecuadamente la medicación.

### ¿QUE DEBO HACER SI MI HIJO PADECE UNA NEUMONÍA?

- En primer lugar usted deberá asegurarse de que el niño toma el antibiótico que se ha prescrito.
- Administrar antitérmicos para bajar la fiebre
- Ofrecer líquidos abundantes, que ayudarán a hacer las flemas más fluidas para que puedan expulsarse mejor. *No es necesario tratar la tos con medicamentos* ya que es el mecanismo necesario para expulsar las flemas.

### ¿QUE DEBO VIGILAR?

Usted debería consultar de nuevo con su pediatra o con nuestro servicio de urgencias si el niño presenta los siguientes síntomas:

- dificultad para respirar, mal color.
- incapacidad para seguir adecuadamente el tratamiento antibiótico (por vómitos, rechazo de ingesta oral...).
- dificultad para alimentarse.
- si a las 48 horas de iniciado el tratamiento antibiótico persiste con fiebre alta.